

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3534

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 6koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Artziniegan (Araba) Udondo Energia S.L. enpresak sustaturiko «BESS Udondo» energia baterietan biltegitratzeko instalazioaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena.

AURREKARIAK

2026ko maiatzaren 25ean, Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritzak eskabide bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari, Artziniegako (Araba) BESS Udondo energia baterietan biltegitratzeko sustatutako proiektu teknikoaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua hasteko, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren esparruan (prozedura Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. kapituluko 2. atalean araututa dago).

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikulua aplikatuz, 2025eko azaroaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak izapidea hasi zuen kontsultak egiteko eragindako administrazio publikoei eta interesdunei. Kontsulta-izapidea egiteko lege ezarritako epea bukatu ondoren, zenbait organismoren txostenak jaso dira, eta haien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, organo substantiboari jakinarazi zitzaion izapidea hasi zela.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko web-orrian, interesdun orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharrek egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organismoak baduela behar beste judizio-elementu ingurumen-txosten estrategikoa formulatzeko, bat etorritik Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikulurekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarri behar dira, nahitaez, ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, bai eta haien aldaketak eta berrikuspenak ere, ingurumen-babes handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaio, lege horren II. eranskineko 4. taldeko n) epigrafean deskribatutakoarekin pareka daitekeelako: «Stand-alone motako biltegitratze energetikoa, bateria elektrokimikoen bidez edo energia elektriko instalazioekin hibridatutako edozein teknologiaren bidez».

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-espedientean dauden dokumentu teknikoak eta txostenak aztertu ondoren, eta ikusita proiektuaren ingurumen-dokumentua zuzena dela eta indarrean dagoen araudian xedatutako alderdietara egokitzen dela, Ingurumen Administrazioaren

Zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren txosten hau ematen du (organo hori da eskuduna Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren arabera). Bertan aztertzen da ea aipatutako proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzakeen eta, horren ondorioz, proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura egin behar zaion; hala ez den kasuetan, proiektua garatzean ingurumena egokiro babesteko bete beharreko baldintzak ezartzen dira txostenean.

Honako hauek hartu dira kontuan: abenduaren 9ko 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; abenduaren 3ko 410/2024 Dekretua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Artziniegan (Araba) baterietan energia biltegitratzeko Udondo Energía S.L. enpresak sustatutako BESS Udondo proiektua dela eta, ingurumen-inpaktuaren txosten hau formulatzea, honako termino hauetan:

A) Proiektuaren xedea da baterien bidez energia elektrikoa metatzea, 4,175 MW-ko guztizko ahalmenarekin eta 417 m²-ko azalera okupatuta, eta bateriak erdi-tentsioko linea baten bidez (430,7 m) konektatzea ebaketa-zentro batera (EZ).

B) Ebazpen honetan, zeinaren bidez ingurumen-inpaktuaren txostena egiten baita Artziniegan (Araba) dagoen «BESS Udondo» baterien bidez energia elektrikoa metatzeko instalazioaren proiekturako (hemendik aurrera, proiektua), proiektuaren ingurumen-dokumentuaren edukia aztertzen da, bat etorritik abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.F. eranskinean ezarritako irizpideekin:

1.– Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren xedea da energia biltegitratzeko BESS Udondo (aurrerantzean, BESS) sistema independente bat eraikitzea, «stand alone» motakoa, bai eta ebaketa-zentro batera (EZ) lotutako ebakuazio-azpiegitura bat ere. Biltegitratze-sistemari dagokionez, gehienez ere 4,175 kWh-ko biltegitratze-ahalmena izango du, eta 1 MW-eko potentzia instalatua. BESSak okupatzen duen partzelaren azalera 14.030 m²-koa da, eta azalera horretatik 417 m² baino ez dira okupatuko.

Instalaziotik, erdi-tentsioko lurpeko linea bat egingo da EZrainera, 430,7 m-koa. Hortik aurrera, interkonexioa bikoitza izan da lehendik dagoen erdi-tentsioko linearekiko. Horretarako, 4. linearen (13,2 kV-ko Arceniega-Gordexola-C-4) 9001 euskarria egokitu/ordeztu egingo da, eta sare elektrikorako sarbide- eta ebakuazio-puntua zehaztuko da.

EZ eta EZren interkonexioa 4. linearen (Arceniega-Gordexola-C-4) 9001 euskarriaraino ez dira proiektu honen xede. 2025eko urtarrilaren 17an, i-DE enpresak sarbide- eta konexio-baimenak eman zituen.

BESS instalazioa:

Biltegitratze-proiektua hauek osatzen dute: bateria-sistema eta zerbitzu osagarriak; potentzia bihurtzeko sistema (PCS); eta eraldaketa-, babes- eta neurketa-zentroa.

Biltegitratze-sistemak LFP (burdin fosfatoa eta litioa) bateria elektrokimikoen edukiontzi bat izango du, 4,175 MWh-koa. Edukiontzi bakoitzak baterien 10 rack izango ditu barnean biltegitratuta guztira. Edukiontziaren tamaina 6 058x2 896x2 438 mm-koa izango da.

Instalazioak Potentzia Bihurtzeko Sistema (PCS) bat izango du, bi noranzkoko bost inbertsorekin, eta guztira 1.000 kVA-ko potentzia izendatua izango du. Ekipa horiek hozteko, babes elektrikorako, lur-konexiorako eta suteen aurkako segurtasunerako beharrezko sistemak dituen edukiontzi teknikoan egongo dira.

Transformazio-, babes- eta neurketa-zentroak 2.000 kVA-ko transformadore bat izango du, 13,2 kV/690 V erlaziokoa, hormigoizko etxola aurrefabrikatu batean.

Eskarza Bidearen (004-000-4) bidez sartu ahalko da biltegitratze-sistemara, eta 304 partzelan egin beharreko sarbide batetik jarraituko du. A-624 errepidearekin lotura zuzena duen bidea da.

Obra zibila: Lur-mugimenduen baitan honako hauek egingo dira: lurra egokitzea (125,39 m³); zimenduetarako (transformazio-zentroa (22,69 m³) eta bateria-estazioa (10,67 m³)) hondeaketak eta zangak eta kanalizazioak egitea (258 m³); guztizko bolumen zenbatetsia 416,75 m³-koa izango da, eta horietatik 154,80 m³ balorizatzea eta 261,95 m³ desgarreraraztea aurreikusten da.

Materialak pilatzeko eremuak eta garbigunea: materialak pilatzeko gune eta garbigune bana proiektatu dira. BESSetik 62,55 m³ landare-lur eta LSMTik 38,76 m³ landare-lur kentzea aurreikusten da. Landare-lurren pilaketek ez dute 1,5 m-ko altuera gaindituko.

Itxitura perimetrala eta zarata murriztea: instalazioak 85 metroko perimetro-hesia izango du eta 417,98 m²-ko eremua mugatuko du. Biltegitratze-instalazioaren perimetra itxitura perimetral baten bidez egingo da, landare-pantaila batekin (gutxienez 5 metrokoa), instalazioen ikuspena minimizatze eta paisaia integratzen laguntzeko.

Ebakuazio-azpiegiturak:

Energia erdi-tentsioko lurpeko linea baten bidez ebakuatuko da, zeinak Transformazio, Babes eta Neurketako Zentroa eta Ebaketa Zentroa konektatuko ditu, eta hortik lehendik dagoen sare elektrikoarekin konektatuko da, alde aurretik aldatutako euskarri baten bidez. Gorago aipatu bezala, ebaketa-zentroa eta sare elektrikoarekiko interkonektzioa ez dira ebaluatutako proiektuaren parte.

Ebakuazio-linearen trazadura lurpekoa izango da, 13,2 kV-ko tentsiokoa eta 430,7 m inguruko luzera duena, eta biltegitratutako energia konektio-punturaino ebakuatuko du.

Uste da obrak burutzeko epea zortzi (8) hilabetekoa izango dela.

Alternatiben analisiaren arabera eta proiektuaren ingurumen-dokumentuarekin bat, 0 alternatiba edo «jarduketarik ezekoa» baztertu egin da. Izan ere, proiektu hori ezartzea bat dator mundu mailako joerekin eta joera nazionalekin, energia metatzeko inbertsioa erabaki estrategiko eta jasangarria izateko.

Ingurumen-dokumentuak bi alternatiba aztertzen ditu, baterien teknologiaren, biltegitratze-sistemaren (BESS) kokapenaren eta ebakuazio-linearen tipologia eta trazaduraren arabera.

BESS proiektuetan gehien erabiltzen diren litiozko baterien teknologien artean, nikel-kobalto-aluminiozkoak (NMC) eta litio-ferrofosfatozkoak (LFP) nabarmentzen dira. Kasu honetan, LFP teknologia aukeratu da, segurtasun-maila handiagoa eta balio-bizitza askoz ere handiagoa eskaintzen dituelako, besteak beste.

Ingurumen-organoaren ebazpenaren arabera, ingurumen-dokumentuan inguruko lurzoru artifizializatu edo urbanizatueta eta hurbileko eremuetan BESS instalazioa ezartzea baloratu du, landa-lurzoruaren okupazioa murrizteko. Hala ere, konexio-puntuaren inguruan ez da identifikatu proiektatutako instalazioa hartzeko adinako azalera eta erabilgarritasuna duen partzelarik.

BESSaren kokapenari dagokionez, bi alternatiba aztertu dira, biak landa-lurzoruan; lehenengoak, 1.743,64 m²-ko azalera du (1. alternatiba) eta bigarrenak, berriz, 13.571,18 m²-ko azalera (2. alternatiba). Alderaketa inpaktuaren irizpide anitzeko analisi baten bidez egin da. Desberdintasun nabarmenena konexio-puntuarekiko distantzia da, ebakuazio-linearen luzera eta hari lotutako afekzioak baldintzatzen baititu. 1. alternatibak ingurune naturalagoa eskaintzen du, eta 2. alternatibak baino lur-mugimendu eta eragozpen gehiago eragiten ditu. Hala ere, ingurumenaren ikuspegitik, bi alternatibek eragin mugatua dute, ez dute naturagune babestuetan edo beste babes-figura batean eragiten, eta okupazio txikia eta puntuala eragiten dute, eremuan Batasunaren intereseko habitatak egon arren. Ildo horretan, 2. alternatibaren alde egin da, konexio-puntutik hurbilen dagoen eta ingurunean eragin txikiena duena baita.

Ebakuazio-linearen tipologiari dagokionez, aireko eta lurpeko alternatibak planteatu dira, eta inpaktuaren irizpide anitzeko azterketa baten bidez alderatu dira. Lurpeko aukerak lur-mugimendu handiagoa badakar ere, nabarmen murrizten ditu ingurumen-eraginak, bereziki abifaunari dagokionez. Hortaz, aukera egokitzat jo da lurpeko linea egitea.

2.– Proiektuaren kokapena.

BESS Udondo biltegiatze-sistema 040 2030 40000000000DP partzelan dago, katastroaren arabera. Ingurumen-dokumentuaren arabera, proiektuaren xede den partzela lurzoru urbanizaezina da, trantsizioko landa-paisaiako eremua.

Proiektuaren eremua Nerbioi-Ibaizabaleko Unitate Hidrologikoan (UH) sartzen da. Partzelak iparraldean muga egiten du Artziniega ibaira isurtzen duen izenik gabeko erreka batekin. BESSa 130 metroko gutxieneko distantziara proiektatzen da; lurpeko linea, berriz, 52 metroko gutxieneko distantziara kanalizatuko da, eta zati batean zaintza-eremuaren barruan geratuko da. Erreka Hedegile azaleko ur-masaren isuri-arroan dago (kodea: ES017MSPFES073MAR002890).

Hidrogeologiari dagokionez, proiektua Antiklinorio hegoaldea lurpeko ur-masaren gainean dago, zeinak 2020 2024 urteen arteko aldirako egoera global «ona» baitu. Eremuan ez dago hidrogeologia-intereseko lekuri, eta akuiferoak kutsatzeko arriskua oso txikia edo antzemanezina da.

Eremuan dagoen litologia kareharri tupatsuzko edo kareharri nodulosen eta tuparri edo limoliten eta kare-lutita beltzen alternantzia irregularra da, hareharriekin.

EUNIS 2019 (geoEuskadi) habitaten kartografiaren arabera, eremua bat dator larratu gabeko sega-belardi atlantikoekin. Proiektua bat dator Batasunaren intereseko 6510 habitatarekin, altitude baxuko sega-belardi elkorrekin (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*). Proiektuaren eragin-eremuan ez dago mehatxatutako flora-espezierik.

Eremuan ez dago fauna mehatxatua kudeatzeko planek mugatutako interes-eremurik edo EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko planeko eremurik edo 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan (2016-05-23ko EHAA) jasotako eremurik ere.

Proiektuaren eremuak ez die eragiten natura-intereseko elementuei edo espazio babestuei, barne hartuta Natura 2000 Sarea, naturagune babestuak, ingurumen-katalogoak, azpiegitura berdea, onura publikoko mendiak eta EAEko interes geologikoko tokiak.

Paisaiari dagokionez, BESS instalazioa Artziniegako ikus-arroan dago, eta ingurumen-dokumentuan paisaia-kalitate ertain-baxuko eta hauskortasun bisual ertain-ertaineko eremutat hartzen da.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak (LPS) ezartzen du instalazioak nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruetan kokatuta daudela, trantsizioko landa-paisaiei lotutakoak, BESSaren zein ebakuazio-linearen kasuan, nahiz eta azken horrek basoko eremuak ere zeharkatzen dituen, zehazki, mendi mehatza.

Eremuan ez dago kalifikatutako edo inbentarioan jasotako kultura-ondareko elementurik.

Eremua ez dator bat lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEren inbentarioko kokalekuekin.

Ingurumen-arriskuez ari garela, baztertu egin dira sute-arriskua, sismikotasuna, higadura-prozesuak, arrisku hidrologikoei lotutako arriskuak (uholde-arriskua duten eremuak) eta Seveso enpresen hurbiltasunari lotutako arrisku kimikoa.

Salgai arriskutsuak garraiatzeko arriskuari dagokionez, A-2604 errepideak oso arrisku txikia du, eta errepide horren 600 metroko tarteek eragiten diote proiektuari. Hala ere, salgai arriskutsuen garraioak ez du trenbiderako arriskurik eragiten.

3.– Izan daitekeen inpaktuaren ezaugarriak.

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, inpakturik nabarmenenak obren fasean sortuko dira. Proiektua garatzeko jarduketaren ondorioz, garbitu eta sastrakak kenduko dira, lurrak mugituko dira, makinaren joan-etorria egongo da, hondakinak sortuko dira eta lurpeko azpiegiturak instalatu eta eraikiko dira.

Jarduketa horiek inpaktuak sortuko dituzte, hala nola lurzoruaren okupazioa (417 m²), ustiapen-fasean mantentzen dena, eta, aldi baterako eta leku jakin batzuetan, habitataren kalitatea murriztuko da (gizakiena eta faunarena), zarata, hautsa, bibrazioak eta abar areagotzearen eta obra-hondakinak (15 m³) eta lur-soberakinak (416,75 m³) sortzearen ondorioz. Horietatik, 154,80 m³ balorizatzea eta 261,95 m³ kentzea aurreikusten da.

Landaredia kentzeari dagokionez, «altitude baxuko sega-belardi elkorra (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)» 6510 habitatean dagoen partzela da.

Egin nahi den jarduera lurzorua kutsa dezakeen jarduera da (EJSN-2009, 35.12 Energia elektrikoaren garraioa. Azpiestazio elektrikoak eta potentzia- nahiz erreaktantzia-transformadoreak); hortaz, sustatzaileak 4/2015 Legean eskatzen den lurzoruaren egoerari buruzko txostena egin eta izapidetu beharko du.

Biltegitratze-instalazioak sortutako zaratari dagokionez, inpaktu akustikoa minimizatzeko diseinatu da. Sistema batez ere eguerdian kargatuko da, eguzki-ekoizpen gehien dagoen unean, eta eskari handieneko orduetan deskargatuko da. Zenbatetsitako zarata-mailak 75 dB ingurukoak dira, baina neurri zuzentzaileak aurreikusten dira hedapena murrizteko.

Ustiapen-fasean, BESSa hiriguneetatik hurbil dagoen nekazaritza-ingurune batean egoteak inpaktu bisuala arinduko luke. LSMTaren kasuan, lurperatuta dagoenez, ez du inolako eragin bisualik izango.

Eraispen-fasean, lurra lehengoratzeko gutxieneko lur-mugimenduak aurreikusten dira, bai eta zarata puntualki areagotzea ere, makina astunak erabiliko direlako. Kutsadura-arriskua badago,

balizko isuriengatik eta landarediari eragiteagatik makinen joan-etorriaren eta hautsa sortzearen ondorioz; hortaz, ondorio horiek eta obra-fasekoak antzekoak dira. Era berean, zaratek eta partikula esekiek eragin arina izan dezakete gizakien osasunean.

Proiektuaren metatze-ondorioei eta sinergikoei dagokienez, eragina bateragarria, tokikoa eta epe luzera berreskuratzeko modukoa izatea aurreikusten da.

Eremuaren eta egin nahi den jardueraren ezaugarriak aztertuta, eta aintzat hartuta bai sustatzaileak proposatutako babes- eta zuzenketa-neurriak, bai ingurumen-inpaktuaren txostenean agindutakoak, ez da aurreikusi proiektuak eragin negatibo nabarmenik izango duenik ingurunearen alderdi horietan.

Bigarrena.– Ebazpen honetan, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-jarraipeneko kontrolak ezartzen dira, proiektuak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta Artziniegako (Araba) BESS Udondo baterien bidez energia metatzeko instalaziorako proiektuan ingurumen-inpaktuaren azterketa arrunta egin beharrik izan ez dadin, baldin eta ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak txertatzen badira.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak organo eskudunaren bidez Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan ezarritakoa aintzat hartuta.

Ezarritako neurriek eta kontrolean arituko diren langileek bermatu egin beharko dituzte ingurumen-dokumentuan ezarritako kalitate-helburuak eta ingurumen-txostenean finkatzen direnak.

Neurri horiek guztiak obrak kontratatzeko baldintza-agirietan jaso beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, obretako jardunbide egokiak aplikatuko dira.

Honako apartatu hauetan adierazitako neurriak gehitu beharko dira:

Jarduketa-esparrua zedarritzea.

– Artziniegako Udalak jendaurrean jartzeko izapidean emandako erantzunaren arabera, biltegi-ratze-estazioa birkokatzea gomendatzen da, hiri-lurzoruarekiko 300 metroko gutxieneko distantzia ziurtatzeko, hesiaren perimetrotik 2. poligonoko 315 katastro-partzelaren mugaraino.

– Ezinbesteko gutxieneko azalerara eta proiektuan zehaztutako mugetara mugatuko dira obrak, jarduketa osagarriak, sarbideak, metaketak, instalazioak, maniobrak eta makinen zirkulazioa. Kanpoko eraginak ez dira baimenduko obra-zuzendaritzaren eta ingurumen-laguntzaren baimenik gabe, eta, hala badagokio, dagozkion zuzenketa- eta lehengoratze-neurriak aplikatuko dira.

Natura-ondarea babesteko neurriak.

– Sastrakak kentzea saihestuko da martxoaren 15etik abuztuaren 15era bitartean ez bada, ugaltze-aldi goiztiarragoa duten espezieei ez eragiteko.

– Lanak hasi aurretik faunaren prospekzioa egingo da eta ugaltze-aldian dauden espezieak bereziki kontuan hartuko dira.

– Oro har, zuzeneko okupaziorik aurreikusita ez dagoen eremuetan ekidin egingo da landaredi autoktonoa moztea, eta, bereziki, behar diren neurriak ezarriko dira nahitaez moztu edo inausi behar ez diren zuhaitzei kalterik ez egiteko.

- Faunarekin gorabeheraren bat behatzen bada, administrazio eskudunari jakinaraziko zaio.
 - Erdi-tentsioko eta ebakuaziorako lineak instalatzeko zangak irekita mantenduko dira ahalik eta epe txikienaz, eta itxi aurretik ikuskatuko dira, fauna bertan harrapatuta geratzea saihesteko. Ihesbideak jarri beharko dira, arrapala egokien bidezkoak, zangetan eroritako faunak ihes egin ahal izateko.
 - Obrak egunean zehar egingo dira, faunan afekzio handiagorik ez izateko egunsentiko eta gaueko orduetan.
 - Landare-espezie exotiko inbaditzaileak sartu eta hedatzea hauteman eta saihesteko kontrol-neurriak hartuko dira.
 - Obran erabiltzen diren makina guztiek garbi egon beharko dute, lokatz- edo lur-arrastorik gabe, halakoetan proiektuaren afekzio-eremuan koka litezkeen espezie inbaditzaileen propaguluak edo haziak egon baitaitezke.
 - Obrek irauten duten bitartean espezie inbaditzaileak ikusten bada, desagerrarazi egingo da jarduketa-eremuetatik.
- Eragindako lekuak leheneratzeko eta paisaia-integraziorako neurriak.
- Paisaia leheneratzeko eta integratzeko lanak egiteko, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egiteko aurkeztutako dokumentazioan jasotako proposamenari jarraituko zaio, jasotako txostenetan adierazitako aldaketak kontuan hartuta:
- Perimetro-hesiaren kanpoan landare-pantaila bat ezarriko da, espezie autoktonoak erabilia, ahal dela ale helduekin edo tamaina nahikoarekin, instalazioa paisaian integratuta gera dadin.
 - Landare-pantailaren zabalera 5 metrokoa izan beharko da, zuhaitz-espezieen bi ilararekin muturretan, egitura funtzionala ahalbidetzeko, ez soilik paisaiari dagokionez, baita ekologiarri dagokionez ere.
 - Lizarrak landatzeaz gain (*Fraxinus excelsior*), ereinotza ere gomendatzen da (*Laurus nobilis*), landare-pantaila eraginkorra delako eta hosto iraunkorra delako. Ez da gomendatzen laharra (*Rubus ulmifolius*) jartzea, oso erraz kolonizatzen baita mugitutako lurretan.
 - Landare-lurrean hidroereitea egin beharko da eta ebakuazio-lineen zangak estaltzeko erabiliko da, landare-espezie aloktonoak eta inbaditzaileak ugaritu ez daitezen.
 - Lehengoratzeko bermealdia, gutxienez, 3 urtekoa izango da, arrakastatsua izango dela bermatzeko.
 - Ingurumena leheneratzeko proiektua eraikuntza-proiektuaren gainerako xehetasun-maila berarekin idatziko da, eta dokumentazio grafikoa zein aurrekontu xehatua gehituko dira. Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapearen Zuzendaritzarekin bat etorriz, leheneratze-proiektu hori Arabako Foru Aldundiko Natura Ondare eta Ingurumen Jasagarritasuneko Zerbitzuek baliozkotu behar dute, BESS instalazioaren proiektua behin betiko onartu aurretik.
 - Obrak eragindako eremu guztietan egingo dira obraren paisaia-integraziorako lanak; aurkeztutako lehengoratzeko-proiektuan agertu ez arren, obrak bukatutakoan kalteak izan dituztenetan ere egin behar dira lan horiek.

Jabari publiko hidraulikoa zaintzeko neurriak eta zortasun- eta zaintza-eremuak.

– Jabari publiko hidraulikoan proiektatutako jarduerak edo jabari horien babes-eremuetan egin behar direnek arroko erakundearen aurretiazko administrazio-baimena behar dute eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 78. ter. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretu bidez onartua, uztailaren 18ko 665/2023 Errege Dekretuz emandako idazketaren arabera; aurrerantzean, JPHE). Uraren Euskal Agentzian egingo da eskaera.

Urak eta lurzorua kutsaduratik babesteko neurriak.

– Oro har, eraikitze fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze naturaleko sarera; horrez gain, uren kalitateari eragiten ez zaiola bermatu beharko da. Halaber, eusteko sistema egokiak izan beharko dira.

– Aldez aurreko baimenik gabeko isurketak debekatuta daude, eta, gorabeherarik izanez gero, KKHri jakinarazi eta neurri zuzentzaileak aplikatu beharko dira.

– Hidrokarburoen material xurgatzaile espezifikoak izan beharko da, ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

– Obraren makina-parkera bideratutako azalera eta haren mantentze-gunea drainatze naturaleko saretik isolatuko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema bat izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta ura ez kutsatzeko. Ezin izango da egin erregaien zamalanik, olio-aldaketa eta lantegiko jarduerarik, horretarako adierazitako eremuetatik kanpo.

– Behar izanez gero, ur kutsatuak biltzeko eta tratatzeko gailuak instalatuko dira, behar bezala dimentsionatuta, solidoak iragazten direla bermatzeko. Debeekatuta dago obran ateratzeko urak aldez aurretik tratatu gabe isurtzea eta hormigoi-makinak garbitzea; sortutako urak putzuetan tratatu beharko dira.

– Obrako instalazio osagarriak lanak amaitu ondoren kenduko dira.

– Aldi baterako biltegitratzeko edo hondakinak biltzeko puntuak, makineria-parkeak, garbiketapuntuak, hormigoi-makinak, landare-lurren aldi baterako pilaketak eta abar kokatzeko zuinketek ingurumen-agenteen ikuskapena izango dute, jarraibide espezifiko egokiak emateko.

– Eremutik kanpoko ekarpenak egin behar badira, kanpoko espezie nitrofiloak ugaritzea eragin dezakeen hazirik ez dagoela bermatuko duen eremu batetik etorri beharko dute.

Zarataren ondorioak gutxitzeko neurriak.

– Zonifikazio akustikoaren, kalitate helburuen eta emisio akustikoen esparruan Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoari jarraituz, obra-fasean erabilitako makinek nahitaez bete behar dute kanpoan lan egiten duten makinaren soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen legeria eta, zehazki, aplikatu behar zaienean, otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua, zeinaren bitartez kanpoan erabiltzen diren hainbat makinek ingurura igortzen dituzten zaratak arautzen baitira, eta arau osagarriak.

Lanek dirauten artean, beharrezkotzat jotzen diren jarraibide egokiak aplikatuko dira, ordutegien mugaketari, zamalanei, obrako makineriaren mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

Obrek 6 hilabete baino gehiago iraungo dutela aurreikusten bada, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, inpaktu akustikoari buruzko azterlana egin beharko da, zuzenketa-neurri aproposak definitzeko.

– Baterien bidez energia metatzeko instalazioak bete egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko F taulan ezarritako zarata-foku akustiko berriei aplikatu beharreko zarata-immisioaren muga-balioak, eta kontuan hartuko ditu, hala badagokio, aipatutako 213/2012 Dekretuaren II. eranskineko 2. ataleko osagai tonalei (Kt) eta maiztasun txikikoei (Kf) dagozkien zuzenketak.

Nekazaritza babesteko neurriak.

– Belardi, laborantza eta aprobetxamenduetatik erretiratzen den lurzoruen azaleko geruzaren landare-lur emankorrena gainerako indusketa-lurretik aparte pilatu behar da, ondoren jatorrizko lekuan jartzeko, beheko geruzetara irauli gabe.

– Makinen, materialen eta abarren erabileraren pean dauden belardi eta laborantza-eremuetan, dagokion berrereintza egingo da. Belardiak berrereiteko, aldeztu aurretik lurra pixka bat landu edo aitzurtu beharko da, lurra ez trinkotzeko, ondorengo berrereintza eta erne-keta egokiak izan daitezen.

– Hala badagokio, eragindako laborantzak birlandatuko dira, dagozkien kalte-ordainekin.

– Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Arauaren arabera, lurpeko kanalizazioa egiteko, dagokion erakunde titularraren aldeztu aurreko eta nahitaezko baimena beharko da; gainera, Bideen Erregistroan inskribatutako bideen kasuan, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuaren aldeztu aurreko aldeko txostena beharko da, beste eskumen batzuk alde batera utzi gabe.

– Itxiturak eta partzeletan dauden gainerako azpiegitura-elementuak (drainatzeak, etab.) eta eragindako laborantzak ordeztu behar dira.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketarekin lotutako neurriak.

– Egin nahi den jarduera lurzorua kutsa dezakeen jarduera da (EJSN-2009, 35.12 Energia elektrikoaren garraioa. Azpiestazio elektrikoak eta potentzia- nahiz erreaktantzia-transformadoreak); hortaz, sustatzaileak 4/2015 Legean eskatzen den lurzoruen egoerari buruzko txostena egin eta izapidetu beharko du.

– BESSen jarduera abian jartzen denean, txosten honen xede den partzela lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan sartuko da; beraz, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) xedatutakoa bete beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.

Eremu elektromagnetikoekiko esposizioaren inguruko kautelazko neurriak.

– Funtzionamendu-fasean, eremu elektriko eta magnetikoen balioek ez dituzte gairak beharko Europar Batasuneko Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioan (jendea orokorrean 0 Hz eta 300 GHz arteko eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruzkoa) eta irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan (jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio

erradioelektrikoen murrizketak eta emisio erradioelektrikoetatik babes-neurri sanitarioak ezartzen dituen erregelamendua onartzen duena) ezarritako erreferentziazko neurriak eta oinarritzko mugak.

Kultura-ondarea babesteko neurriak.

– Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoari jarraituz, lurrak erauzteko obretan arkeologia-izaerako aztarnarik aurkituz gero, berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari, eta azken horrek zehaztuko du zer neurri hartu behar diren.

Hondakinak kudeatzeko neurriak.

– Proiektua egikaritzean eta haren funtzionamenduan sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatu behar diren arau espezifikoei xedatutakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan-kasuan, sailkatu egin beharko dira hondakin mota eta norakorik egokiena zehazteko.

– Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

– Hondakinak deuseztatzeke, ezinbestekoa izango da alde zuretik behar bezala justifikatzea ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

– Berariaz debekatuta dago sortutako hondakin tipologia desberdinetako hondakinak edo efluenteak elkarren artean edo beste batzuekin nahastea; jatorritik bertatik bereiziko dira, eta biltzeko eta biltzeiratzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasteak ekiditeko.

– Eraikitze- eta eraispen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

– Zaborte-gira bidali beharreko hondakinak, hain zuzen ere Hondakinak zaborte-gietan utzita deuseztatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren eta Hondakinak hondakindegietan biltzeiratzeko eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

– Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

– Betelanetarako, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako balioen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinean daude jasota adierazle horiek.

– Indusketako soberakinak kudeatzeko, hierarkia- eta hurbiltasun-printzipioei jarraituko zaie; lehentasuna emango zaio material horiek balorizatzeari, dela materialok behar dituzten gertuko eraikuntza-obretan, dela erauzketa-jarduerak eragindako lursailak birgaitzeko lanetan edo beste espazio degradatu batzuk leheneratzeko lanetan. Hala, ez dira ezabatuko betelan-instalazioetan. Horretarako, kontuan izango da urriaren 10eko APM/1007/2017 Agindua, Hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorreari buruzkoa.

– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasita, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

– Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berrazko edukiontzia jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita. Hondakinak biltzeko ontziak edo bilgarriak era argian, irakurgarriak eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

– Sortzen den olio erabilia kudeatzeko, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituko zaie. Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioak andel estankotetan bilduko da, estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitzaren gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

– Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, ez da inolaz ere sortuko kontrolatu gabeko efluentetik erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Airearen kutsadura murrizteko neurriak.

– Obrak egin bitartean, zorrotz kontrolatuko dira ibilgailuak igaro ondoko garbiketa-lanak, bai obrek eraginpean hartutako ingurunean, bai jarduketa-eremuetara sartzeko guneeetan. Ureztapen-sistema bat edukiko da, aldi baterako soilduta dauden edo ibilgailuak igarotzean partikulak aireratu daitezkeen pista eta eremuetarako. Gainera, lehorraldietan, hautsa duten lur- eta material-pilaketak ureztatuko dira.

Suteen aurkako babeserako neurriak.

– Larrialdi-zerbitzuen babes eta operatibitate egokia bermatzeko, hesiaren perimetroaren ondoan, 5 metroko zabalerako bide-zerrenda perimetral bat egin beharko da, eta Eskarza bidetik irisgarria izan beharko du. Bide horrek, gainera, suhiltzaile-kamioientzako maniobra-eremu bat izan beharko du; zehazki, 12,50 metroko erradioko (barrualdetik neurtuta) eta 5 metroko zabalerako zerrenda zirkular bat.

– Era berean, instalazioak ur-hargunea izan beharko luke, ur-hargune edo sistema baliokide bat instalatu ahal izateko, bai eta suteetatik babesteko nahitaezkoak diren neurri aktibo guztiak ere.

– Ur-hargunea instalatzeko beharrezko hornidura nahikoa justifikatu beharko da, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuta (Consortio de Aguas de Álava/Urbide-Arabako Ur Partzuergoa).

– Instalazioak zerrenda perimetral bat izan beharko du suhiltzaileentzako; horretarako, bide-zerrendaren jarraian, proiektuan aurreikusitako landare-pantailak eta tamaina ertaineko landaketak dituen bost metroko zerrenda gehigarri bat osatuko da, eta hazkunde-altuera ertainekoa eta inguruneke segurtasun- eta mantentze-baldintzekin bateragarria izan beharko du.

Jardunbide egokien sistema bat ezartzea.

– Langileek jardunbide egokien sistema bat ezarri beharko dute, helburu hauek, besteak beste, ahalik eta hobekien bermatzeko:

- Lanek okupatzen dituzten mugak kontrolatzea.
- Hondakinen isurpenak saihestea, bai eta olio-isurien eta lurren arrastatzearen ondoriozko lurzoruen eta uren kutsadura ere.
- Proiektuak afekzio-eremuan herriguneetako biztanleei trabarik ez eragitea zarata eta hautsarekin.

– Obrak, bai eta lurzorua okupatzea dakarten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan egingo dira. Eremu horretatik kanpo, ahalik eta gehien murriztuko dira makinak joan-etorriak. Adierazitako eremutik kanpo ustekabearen afekzioak gertatuz gero, zuzenketa- eta leheneratze-neurri egokiak ezarri beharko dira.

– Kontratatutako elementu hauek egokitu beharko ditu egin beharreko jardueren ondoriozko ingurumen-inpaktuak ahalik eta txikienak izan daitezen: lur geldo eta landare-lurrak aldi baterako metatzeko guneak; obrako instalazioak eta eraikinak; makinak; materialen, olioaren eta erregaien biltegiak; ibilgailuak edo bestelako egiturak garbitzeko eremuak; urak arazteko sistemak; eta obrako sarbideak eta pistak. Kontratistaren instalazio-eremu horien mugaketa eta ezaugarriak kasuan-kasuan jarduten duen obra-zuzendaritzak onartu beharko ditu.

– Obrak amaitzean, kanpaina bat egingo da soberako material guztiak eta obretan sortutako hondakinak kentzen direla bermatzeko, eta azken horiek indarreko legeriaren arabera kudeatuko dira.

Garbitzea eta obra amaitzea.

– Obra bukatu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat egingo da; proiektuak ukitutako eremua inolako obra-hondakinik gabe utzi beharko da, eta aldi baterako instalazio guztiak desmuntatu egin beharko dira.

Jarduera uztea.

– Instalazioaren balio-bizitza amaitzen denean, jarduera uzten den garaian aplikatu behar den berriarazko araudia betetzeaz gain, babes- eta zuzenketa-neurri batzuk aplikatuko dira instalazioak desmuntatzeko lanetarako; hain zuzen, eraikitze-lanetarako ezarritakoen antzekoak izango dira, batez ere hondakinen kudeaketari dagokionez. Eraiste-prozesuan okupatutako azalera guztiak leheneratu egin beharko dira.

– Era berean, jarduera bertan behera utzi ondoren, titularrak ebaluatuko du lurzorua nola dagoen eta instalazioak erabilitako, ekoiztutako edo zabalduetako substantzia arriskutsu esanguratsuek lurpeko uretan zer-nolako kutsadura eragin duten, eta, halaber, organo honi emango dio ebaluazio horren emaitzen berri. Ebaluazioak erakusten badu instalazioak lurzoruen edo lurpeko uren kutsadura nabarmena eragin duela, betiere lurzoruen kalitatea adierazteko izapidetan lurzoruen kalitatea ikertzeko idatzi diren txostenetan ezarritako egoerarekin alderatuta, titularrak neurri egokiak hartuko ditu kutsadura horri aurre egiteko eta instalazioa lehengo egoerara ekartzeko, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen II. eranskineko arauak jarraikiz.

Ingurumen-aholkularitza.

Obrak hasten direnetik betelanaren ustiapen-aldia amaitu arte, ingurumen-gaietan eta babes- eta zuzenketa-neurrietan kualifikatutako aholkularitza-enpresa baten laguntza jasoko da. Obra-zuzendaritzak ebazpenik eman behar badu, baldintza-agiriak horrelako gaien inguruan esleitzen dizkion eginkizunak erabiliz, aholkulariek txostena egin beharko dute alde zuzenetik.

Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du, obra egikaritzean. Besteak beste, proiektuko ekintzen eragina aztertuko du, bereziki hauei dagokienez: makinaren mugimenduak, hauts eta zarataren sorrera, ibilguen gaineko eragina, hondakinen kudeaketa eta natura-ondarearen babesa.

Hirugarrena.— Lehenengo puntuan ezarritako baldintzen arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak eta kontrolak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere —aurrekoen aurkakoak ez badira—, ez da aurreikusten Artziniegan (Araba) dagoen eta Udondo Energía S.L. enpresak sustaturiko «BESS Udondo» baterien bidez energia elektrikoa metatzeko instalazioaren proiektuaren egikaritzean ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea.

Laugarrena.— Ebazpen honen edukiaren berri ematea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzari.

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Seigarrena.— Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren txosten honek indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta aipatutako proiektua gauzatzen ez bada Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 6a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.